

noaue



**Hurbilagoren Tonbolan
sartuak iruditan**

Datozen jaiei begira

**Udarregi Ikastola, hitanoa
landu eta erabilera sustatzen**



Xabi Sancho pilotaria:
**“Irabazteko geratzen zaidan txapelketa
bakarra Europako buruz burukoa da”**

ARATZ

zabaleta anaiak

1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



· eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04



20 urte
sarean!



noava

noava.eus, usurbildarren zerbitzura



Albisteak iruditan

Sagardo Plazan dagoen “egongelako” armairua, edukiz berritua

Negu partetik hona, aire zabalean egoteko txoko berri bat du Usurbilek. Lasai ederrean bakarrik nahiz lagunartean egoteko gunea. Mahaia eta aulkiak ditu, baita etzaulki bat ere. Eta armairu bat, liburuz nahiz jolasaz egoki asko hornitua. Usurbilgo Udalaren enkarguz Juntura kooperatibak NOAUA! Kultur Elkar-teen egoitza ondoko Sagardo plazarako landutako egiturez ari gara. Aipatu armairuko bilduma bizia izatea nahi du Udalak, eta egunotan jakinarazi dutenez, edukiz aberastu dute. “Sagardo plazako liburutegi txikia liburu berriei hornitu dugu”, berri eman du sare sozialen bidez Sutegi udal liburutegiak.

Material hau guztia plazan egon artean erabili daiteke, eta gero hartu den moduan uztea eskatzen dute. “Gogoratu liburuak irakurri, begiratu, partekatu, gozatu... nahi izanez gero etxera eramanez ondoren,



Sagardo plazako armairuan aisialdirako denbora-pasa anitz aurkitu daitezke; liburuak, jolasak...

arren, bere lekuan utzi”. Gaztetxoak edota hainbat guraso ikusten ari gara kultur elkar-terko leihotik azken aldian, Sagardo plaza

hau biziberritzen. Horixe baita helburua; orain arte pasabidea izan den txoko hone-tan, gune atsegin eta bizia sortzea.

Laburrean

1383,01eko intzidentzia

Otsailaz geroztik koronabirusak izan-dako intzidentzia handienera itzuli da Usurbil; 1383,01eraino igo baita. Nabar-men gehitu dira kasu berrien agerraldiak; iragan astean, 52 kasu berri, 63 uztailera lehen hamar egunetan. Igoera orokorra izan da eskualdean ere.

Nafarroa laguntzeko deia

Suteek Nafarroan eragindako honda-mendiari aurre egiteko diru-bilketa abiarazi du Errigorak. Ekarpinak uztai-laren 15era arte egin daitezke errigora-eus atarian. Jasotako laguntza suetak berdeak eta abeltzaintza estentsiboa sustatzera bideratu nahi dute.

Azken aldizkariak

Astebete barru, uztailaren 22an kale-ratuko dugu udako oporraldi aurreko azken NOAUA!. Ordurako zorion-agur edo oharrik baduzue, uztailaren 18a baino lehen helarazi erredakzioa@noaua.eus helbidera. Oporraldi osteko lehen astekaria, irailaren 9an.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Ergel digitalen fabrika

Nire gogoetaren izenburua nahiko gogorra da oraingoan, baina tresna digitalek eduki ditzaketen arriskuak ere handiak direnez eta denok mundu horretan murgilduak gaudenez, nik uste hausnarketa serio samar bat egiteak ez digula batere kalterik egingo. Duela gutxi irakurri nuen Michel Desmurgetek idatzi berria duen liburua laburpena. Titulua: “La fabrique du crétin digital” (“Ergel digitalen fabrika”). Frantzian “best seller” (gehien saldua) bat izan da. Idazlea lyondarra da, neurozientzian doktorea eta Frantziako Osasunaren Institutu Nazionalako ikerketa zuzendaria. Argitaratu duen liburu horretan gailu digitalek haur eta nerabeengan dituzten arriskuez ohartarazten du, pantailakiko esposizioak dakartzan arazoaren eta erronken azterketa xehatua egiten du.

Liburua bi multzo handitan antolatua dago: lehen blokean, egileak metodo zientifikoa erabiliz aztertzen ditu komunikabideez egiten diren baieztapenak eta jasotzen dituzten laudorioak. Eta bigarren zatian, pantailarekiko gehiegizko esposizioaren arriskuak ikertzen ditu.

Ima Sanchís kazetariak elkarrizketa luze bat egin zion Desmurgeti La Vanguardia aldizkarirako. Hona hemen lauzpabost galderari egindako erantzunak.



2019ko Usurbilgo jaietako maskotak gai hau egoki asko irudikatu zuen.

LUIS ARANALDE

“Mundua murgildua dago funtsezko aldaketa batean eta inork ez daki noraino garamatzan. Hausnarketa sakon bat egiteko deia da Michelen salaketa. Baina, berak ere badaki idaztea errazagoa dela soluzioa aurkitzea baino”

1-Zer deritzozu haurrek pantailaren aurrean pasatzen dituzten orduetako buruz? Zifrak dramatikoak dira: 8 urtetik 12ra bitartekoak egunean 5 ordu egoten dira gailu digitalen aurrean. 2 urtetik 18ra gaztetxo batek igarotzen duen denbora batzen badugu, 30 eskola-urte dira.

2-Zure liburua izenburua nahiko esanguratsua da. Pantailak inozoen belaunaldi bat

sortzen ari al dira? Titulu hori aukeratu nuen garbi hitz egiteko ordua iritsi delako. Zenbaitzuek minimizatu egiten dute pantailen erabilerak duen eragina, baina errealitatea da ondorio beldurgarriak dituela. Gizaki bihurtzen gaituen guztian dute eragina pantailak: hizkuntzan, pentsatzeko gaitasunean, arrazoiterakoan, memorizatzerakoan. Ikerketa askok horixe frogatzen du.

3-Ba, guraso askorentzat ez da txarra bere haurrek egunean hiru bat ordu pasatzea bideojokoekin. Ez dirudi hain kaltegarria denik. Orduan? Industria hau diru iturri nagusietako bat delako, urtean zehar bilioiak sortarazten dituelako. Berdin gertatzen zen garai batean tabakoarekin: aurrea ebidentziak ukatu eta gero minimizatzen saiatu.

4-Pantailak kaltegarriak direla

jabetzeko pista bat ez al da industria honetako jabeek beren haurrak ordenagailurik ez dagoen ikastetxeetara eramaten dituztela? Ez da hori bakarrik, etxean ere ez diete uzten erabiltzen iPadik edo beste gailu digitalik. Steve Jobsi (ordenagailu munduan enpresari nagusietakoa) galdetu zion kazetari batek ea zer pentsatzen zuten bere seme-alabek iPadik buruz. Erantzuna: nire etxean ez dago ez ordenagailurik, ez iPadik. Eta berdin gertatzen da enpresari handi askoren etxean.

5-Pantailak menpekotasuna sortzen dute? Guraso asko kezkatzen da esanez beren seme-alabei pantailen erabilerara mugatu nahi dietenean, hauek ez dietela kasurik egiten. Bai, pantailak sortzen duten menpekotasuna benetako arazoa da. Ikertzaile askoren ustez, erabiltzaileen %5a tresna horien mende erori dira.

Michel Desmurgetek ordenagailuei buruzko mito asko salatzen ditu, baina, gertatzen dena da gaurko gaztediak jasandituen aldaketak pantailen arazoak baino askoz zabala goak direla. Mundua murgilduta dago funtsezko aldaketa batean eta inork ez daki noraino garamatzan. Hausnarketa sakon bat egiteko deia da Michelen salaketa. Baina, berak ere badaki idaztea errazagoa dela soluzioa aurkitzea baino.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Kirol saileko buruaren hautaketa

Urrats berriak, “Kirol Saileko Buru plaza bat hornitzeko hautaketa-prozesuan”. Usurbilgo Udalak abian jarritako deialdiaren baitan, “onartuen eta behin-behineko zerrenda, Epaimahai Kalifikatzailearen izendapena eta lehenengo ariketaren data” plazaratu ditu.

Zerrendak erreklamazio epean

Zerrendei dagokienean, hautaketa prozesu honetara aurkezturiko 48 lagun izan dira onartuak, beste bederatzik deialdi honetan partehartze-ko eginiko eskabideak baztertuak izan dira.

Uztailaren 6az geroztik, zabalik da hamar lanegunez “behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko” epea, iragan uztailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak berri eman zuenez. Tarte horretan, erreklamaziorik aurkezten ez bada, “behin-behineko



Oiardo Kiroldegian izango dira lehen probak, uztailaren 29an.

UDALAREN LAN DEIALDIA

“Hautaketa prozesu honetara aurkezturiko 48 lagun izan dira onartuak”

zerrendak behin betiko bihurtuko dira”, ohararazi du Usurbilgo Udalak.

Udalak abiarazitako prozesurako epaimahaia ere izendatu du Usurbilgo Udalak eta le-

hen bi frogetarako hitzorduak ere finkatu dituzte.

Lehen probak, hilabete amaieran

Uztailaren 29an izango dira, hilabete honetako azken ostiralean, goizeko bederatzietan hasita Oiardo Kiroldegian bertan.

Informazio gehiago, aipatu moduan, uztailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso ahalko duzue.

Dirulaguntzen ebazpenak

12 dirulaguntza lerroren behin-behineko ebazpenak kaleratu zituen Usurbilgo Udalak ekainaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Alegazioak aurkezteko epea, uztailaren 14an itxiko dute.

Ekintzaileentzako dirulaguntzak

Udal dirulaguntza gehien behin-behineko ebazpenak kaleratu dituzten arren, ekintzaileei zuzendurikoe-tara eskabideak aurkezteko epeak zabalik jarraituko du irailaren 30era arte. Batetik, Kabielen proiektua garatzen laguntzeko urtebeteko egonaldia diruz laguntzen duen Hasiz Hazi beka deialdia dago. Bestetik, merkataritza lokal hutsetan jarduera ekonomiko berri bat abiarazteko lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako laguntza lerroa. Xehetasunak, martxoaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

207 langabetu ekainean

Otsailetik apirilera 13 langabetu gehiago izan osten, 3 langabetu gutxiago izatera itzuli da Usurbil. Iragan hilabetearen 207 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak udalerrri honetan.

Beherantz baita langabetu kopurua Buruntzaldean

(maiatzean 3.001 eta ekainean 2.953) eta Gipuzkoan (maiatzean 30.162 eta ekainean 29.328). Usurbilgo datuetara itzulita, emakumezkoen artean halere zertxobait gorantz egin du langabetu kopuruak; 126 ziren maiatzean, 129 ekainean. Gizonezkoena aldiz 82tik 78ra

murriztu da denbora tarte berean.

Emakumezko langabetu gehiago, kontratatu gutxiago

Aldiz, ekainean erregistraturiko 401 kontratuetatik 175 izan dira emakumezkoenak eta 226 gizonezkoenak. Oro-

har kontratazioak gorantz egin du, maiatzean 271 kontratu hitzartu baitziren Usurbilen. Joera bera baita Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere; eskualdean 1.959tik 2.481era eta Gipuzkoan 20.229tik 25.123ra igo da kontratatuak izan diren langileen kopurua.

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

BONEX
REHABILITACIONES S.L.
ERAIKINAK BIRGAITZEKO
ETA HOBEKUNTZA ENERGETIKOAK
LORTZEKO SOLUZIOAK
* Impermeabilizazioak
* Isolamendu termikoa
* Teillatuak
* Mantenimendua
* Fatxadak
Zubiaurrenea Kalea 3, 20170
Usurbil | Tlf: 625077916
info@bonex.es

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

“Euskal Herriko ostalaritza eta San Cristobal de la Lagunakoa ezberdinak dira”

Oskar Uribek duela zortzi urte utzi zuen Usurbil Tenerifeko San Cristobal de la Lagunara bizitzera joateko. Kanpoan urteak badaramatza ere, bihotzean eta gogoan darama hazten ikusi zuen herria. NOAA! rekin izan da Kanarietako bizimoduari buruzko bizipenak partekatze-ko.

NOAA! Zerk eraman zintuen Tenerifera?

Oskar Uribe: Urte gogorak ari nintzen pasatzen Usurbilen eta bertatik alde egiteko beharra sentitzen nuen. Arazo pertsonal asko izan nituen tabernarekin eta familiarekin ere, denetariko arazoak. Dena ondo zihoan itxura eman nahi nuen, baina neure aldarlean ere eragina zuten arazoak. Urte batzuk horrela eman ondoren, alde egiteko beharra neukan eta deskonektatu egin nahi nuen. Bi aukera nituen Bartzelonara joatea edo Tenerifera joatea. Lagunak neuzkan bi lekuetan eta lehendabizi Donostiako kuadrilako lagunekin hitz egitea erabaki nuen. Tenerifen bizi ziren haiek. Ikasketak hemen egin zituzten eta behin amaituta, bertan gelditzea erabaki zuten. Haiekin hitz egin nuen eta hilabete batzuetan



“Jendeari segituan itzuliko nintzela esaten nion, baina banekien urte asko egingo nituela hemen”. Zortzi egin ditu jada Tenerifeko San Cristobalen.

OSKAR URIBE

“Nire osasunerako ezinbesteko pausoa izan zen hona etortzea”

deskonektatzeko beharra nekala azaldu nien. Ideia ona iruditu zitzaizen eta etortzera

animatu ninduten. Hilabetetxo batzuk haien etxean egin nituen. Penaz ere etorri nintzen; familia, lagunak eta herria atzean utzi beharagatik. Nire osasunerako ordea ezinbesteko pausoa izan zen hona etortzea.

Hilabete gutxirako joan zinen hasieran, baina urteak dara-

matzazu bertan.

Hiru hilabete egin ondoren, etxera itzuli edo bertan geratu erabaki behar nuen. Behin geratzeko erabakia hartuta, lana bilatu beharra neukan eta bizimodu bat eraikitzea ere ezinbestekoa nuen. Lasaitzen hasi nintzen pixkanaka eta bizimodu berrira ohitzen. Asko kostata izan bazen ere, denbora luzez hemen geratzea erabaki nuen. Jendeari segituan itzuliko nintzela esaten nion, baina berez banekien urte asko egingo nituela hemen.

Tenerifen ere ostalaritzan jarraitzen duzu lanean?

Bai, ostalaritzan jarraitzen dut catering batean lanean. Euskal Herriko ostalaritza eta hemen goa ezberdinak dira. Ohiturak ere ezberdinak dira. Euskal Herrian poteoa sakratua da eta hemen berriz jendeari terrazan egotea gustatzen zaio, turista zein bertakoa izan. San Cristobal de la Lagunan egiten dut lan eta hemen turismoak ez du halako indarrik. Familiak eta herritarrak dira gure bezeroak nagusiki. Turistak ere etortzen dira goiz partean bisitan, baina gero hegoaldera jotzeko ohitura dute. Hegoaldeko egoera oso ezberdina da turismoari dagokionean.

“Oso festazaleak dira. Horretarako beti prest daude”

NOAA! Kanariar Uharteetan gu baino irekiagoak eta hizlariagoak dira. Estereotipoak hori dio behintzat.

Oskar Uribe: Bai, irekiagoak dira eta beti laguntzeko prest daude. Oso festazaleak ere badira, horretarako beti prest daude. Horrez gain, nahiko

“aplatanatuak” direla ere esaten da, baina denetarik dago. Batzuk oso lasai bizi dira, inolako presarik gabe.

Ahoskera berezia ere badute bertakoek. Zure gazteleran ere eragina izan du edo ondotox dakite hitz egiteko moduaga-

tik euskalduna zarela?

Bertakoek esaten didate oraindik ahoskera ez dudala hartu behar bezala. Etxekoekin hitz egitean edo Euskal Herrira itzultzean aldiz, Kanarietako ahoskera dudala esaten didate. Tenerifen ezagutzen ditudan euskaldunekin askotan euskaraz hitz egiten

dut, baina gazteleraz ere bai zenbaitetan. Gure artean ere atzematen dugu zerbait ari garelako hartzen, hizkera ezberdina erabiltzen dugu, gozoagoa edo.

Beraz, zerbait aldatu zait ahoskera, baina ez dut bertakoek bezala hitz egiten.

“Itzuli egingo naiz Usurbilera, baina oraindik ez dakit noiz izango den”



“Neguan egunez eguzkia egiten du askotan hemen, San Cristobal de la Lagunan, baina gero gauzez haize hotza sartzen da eta hotz egiten du”.

NOAUA! Etorkizun hurbilean bertan geratuko zara bizitzen ala epe ertainean itzultzeko asmoa duzu?

Oskar Uribe: Itzuli egingo naiz, baina ez dakit noiz oraindik. Bi min nagusi ditut gorputzean. Batetik, Usurbildik alde egin beharra arazoan ondorioz. Bizitza hori atzean utzi beharrak pena handia ematen dit; lagunak, familia eta herria utzi behar izanak. Bestalde, hemen nintzela utzi gintuen anaiak, Jonek, eta orduan ezin izan nuen bertan egon azken momentuak berarekin pasatzeko. Ez dut horrelakorik gehiago gertatzerik nahi. Zentzu horretan, beldur naiz amare-

OSKAR URIBE

“Orain lasai nago eta dena lehengora itzuli da nolabait. Bueltatzeko asmotan nabil eta espero dut oso berandu ez izatea”

kin ere hori gerta litekeelako. Espero dut oraindik urte asko emango dituela gurekin, baina gerta daitezkeen gauzak dira. Usurbilen arazoz lepo nengoe-la amarekin haserre ere egon nintzen denboraldi batez, eta etxetik alde egin nuen. Gerora konpondu ginen eta orain harreman oso ona daukagu eta ez

nioke neure buruari barkatuko anaiarekin gertatutakoa amarekin ere gertatuko balitz. Ondorioz, itzuleraren gaiari buelta asko eman dizkiot. Orain lasai nago eta dena lehengora itzuli da nolabait. Itzultzeko asmotan nabil eta espero dut oso berandu ez izatea. Urtebete edo bi agian pasatuko dira ni itzultzerako, baina ez nuke nahi gehiago izaterik. Behin etxera itzuli eta zerotik hasiko naiz berriz ere.

Ez da gauza bera hona oporretara etortzea aste batzuetarako edo hilabetetxo batzuetarako, edo urte asko ematea hemen. Laguntasuna ere hoztu egiten da nahita nahiez. Horretaz kanpoan gaudenean

konturatzen gara.

Klima oso ezberdina da han. Nongoa duzu nahiago?

Niri egun osoan eta egunero eguzkia egitea ez zait gehiegi gustatzen. Eguraldia ez da horren ezberdina han eta hemen, Kanariak epelagoak dira orokorrean eta eguraldi hobea egiten du, baina hemen ere negua negua da. Neguan egunez eguzkia egiten du askotan, baina gero gau aldean haize hotza sartzen da eta hotz egiten du. Aukeran, Tenerifeko eguraldia hautatuko nuke. Usurbilera joatean, neguan egunero euria eta hotza egiten du eta orduan faltan botatzen dut Tenerifeko eguraldia.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
Parranda jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

“Ideologikoki borroka hau irabazi dezakegu. Aurrerapauso handiak eman ditugu”

Duela hilabete pentsiodunen aldeko bizikleta martxak Usurbil eta Euskal Herria zeharkatu zituen; Hego Euskal Herriko 57 herri, baita estreinakoz Ipar Euskal Herriko beste zazpi herri ere. Ekimena Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak antolatu zuen. 13 eguneko martxa Donostian hasi eta Gipuzkoako hiriburuan amaitu zen manifestazio batekin. Tartean, 700 kilometroko bidea osatu zuten.

Aldarri anitz plazaratzen

Ekimenak izandako harre-
rarekin oso pozik dira anto-
latzaileak. Udaberrian pres-
taketa lanekin egin bezala,
Potxoenea hautatu zuen
iragan astean berriz, bizi-
kleta martxaren inguruko
balantzea egiteko: bai tropel
barruan bizi izandakoa par-
tekatzeko, baita herriz herri
jasotako babesa aztertze-
ko ere. “Benetako mugimendu
soziala dela erakutsi dugu,



Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduko kideen bilkura, iragan astean Potxoenean.

PENTSIODUNEN BILKURA

**“Udaberrian prestaketa
lanekin egin bezala,
Potxoenea hautatu zuten
iragan astean berriz”**

indarra duela, transbertsala
dela”. Ez baita ahaztu be-
har, gazte mugimenduekin,
mugimendu feministarekin,
osasun langileekin, egoitze-

tako langileekin, langileen
mugimenduekin eskuz
esku auzolanean dabiltzala
azken urteotan. “Aldarri asko
plazara ateratzeko gai dela”,
adierazi zion NOAUA!ri Irazu
kaleko kultur-etxe-
ko bilera-
ren amaieran, Euskal Herriko
Pentsiodunen Mugimenduko
kide Jexux Mari Soubies Ga-
rateg NOAUA!ri.

Balorazio ezin baikorra

egin dute beraz. “Zuzen-
zuzen joan da toki guz-
tietan”. Ezbeharrak gabe,
elkarbizitza giro ederrean.
Kanpotik begiratuta, bisitatu
dituzten herri eta hiriburu-
tan, “ikaragarria izan da egin
diguten harrera”. Soubiesek
nabarmendu duenez, “harri-
garria izan da tokian tokiko
taldeek erakutsi duten mobi-
lizatzeko gaitasuna”.

“Udazken oso beroa izango denaren” tankera

Astelehenero batzen dira
Hego Euskal Herriko hain-
bat herri eta hiriburuetan
deitutako mobilizazioe-
tan. Uztaila hasierara arte
elkartu dira plaza anitzetan
azken urteotan egin duten
moduan. Usurbildik gertuen
Donostian. Uda partean
etenaldia egingo dute leku
gehienetan. Irailean kalera
buelatzekoak dira.

Deialdian, “1080 euroko
Gutxieneko Pentsioaren alda-
rriapena, zerbitzu publikoen
defentsa eta zainketa parteka-

tuaren lana nabarmendu nahi
ditugu”. Ildo berean, “Gas-
teizko eta Iruñeko Gobernu-
ei eskatzen diegu 2023ko aurre-
kontuetan 1080 euroko osaga-
ria sartzeko, estatuko gober-
nuak gutxieneko pentsio hori
erabakitzen duen bitartean”.

Udazken beroa

Azken aldian hedabideetan
sarritan entzuten ari garena-
ren sentsazioa du NOAUA!ren
elkarriketatuak. “Udazken
oso beroa izango denaren
itxura du”, Soubiesen esa-

netan. Baina ez dira atzean
geratuko. “Iraila etorriko da
eta indar handiarekin hasiko
gara”, iragarri digu.

Hainbat ekimen dituzte
agendan; batetik, lehendik
egin izan duten moduan,
sindikatu-ekin bilera erronda,
mugimendu sindikalak eta
pentsiodunenak zer parteka-
tua badute eta. “Harreman
estua dute, pentsioek eta
soldatak elkar lotuta” daude
eta. Horrez gain, pasa den
bizikleta martxan jasotako
irudiekin ikus-entzunezko

lan bat ekoizteko asmoa
ere agertu digute. Eta bi-
zikleta martxak zeharkatu
dituen herrietan jaso duten
babesa argia izan da; “toki
guztietan agertu da erabaki
sendoa, helburua lortu arte
astelehenetan” plazara ate-
ratzen segiko dutela. Iraba-
zi arte.

Aldarriok herrian txer-
tatzen doazela aipatu digu
Jexux Marik. “Ideologikoki
ere borroka hau irabazi de-
zakegu. Aurrerapauso han-
diak eman ditugu”.

Uztailaren 24an gure artetik igaroko den bizikleta itzulua babesteko Sareren deia

Osasun krisialdiak behartutako bi urteko etenaldiaren ostean, bidera itzuliko direla iragarri du Sarek. “Etxea bidea gertu!” aldarripean, bizikleta itzulua iragarri dute uztailaren 22tik 24ra, Nafarroako Etxarrin hasi eta Donostian amaituko dena. Hiru etapa hauetan azkenak, hilaren 24koak inguruok zeharkatuko ditu N-634 errepidetik barrena. Azpeitian hasiko da eta Orio aldetik Aginagara helduko dira txirrindulariak, eta handik Usurbil ingurua zeharkatuko dute goizeko 11:00ak pasatxoan. Mikel Laboa plazan elkartu eta handik martxa babesteko San Inaziora jaisteko deia egin dute.

Usurbilgo Sarek eskualdeko taldeekin batera astelehen arratsaldean Lasarte-Oriako Okendo plazan egindako agerraldian hitzorduan parte hartzeko gonbita luzatu zuten. Ekimenari atxikimendua adierazteko bi modu izango dituzue; errepide ertzetik babesa adierazita, edota tropelean parte hartuta. Sareren web orrialdean (sare.eus) izena emateko aukera dute bizikleta martxan atera nahi dutenentzat. Norbere datuak zehaztu behar dira eta baita, hiru eguneko itzuli osoa egin nahi den, edota uztailaren 22-24ko asteburuko hiru etapetako bat edo bi. Lehen etapak Nafarroako Etxarri-Aranatz eta Bizkaiko Durango lotuko ditu. Biharamunekoa, hilaren 23koak, Durango eta Azpeitia, eta uztailaren 24koak, Azpeitia eta Donostia.

Salbuespen neurriak eteteko

Bizikleta martxaren bosgarren edizioa izango da honakoa. “Pedalkadaz pedalkada hiru egun, aldarrria soinean eta lagunarteko giro ederra. Aurten ere bidean gara! Zatoz gurekin!”, luzatu



Eskualdeko Sare taldeetako ordezkariak aste hasieran Lasarte-Orian egin zuten agerraldia.

SARE

“Oraindik presoen %36a Espainiako espetxeetan dago. Salbuespen neurri horiek behingoz bertan behera utzi nahi ditugu”

du gonbita Sarek. Salbuespen politikarekin amaitzea eskatuko dute. Sarek gogorarazi duenez, “oraindik presoen %36a Espainiako espetxeetan dago. Salbuespen neurri horiek behingoz bertan behera utzi nahi ditugu”.

Helburu berdinen bueltan deitu du Sarek baita abuztuaren 20rako Donostian mobilizazioa. “Aurtengoan ere, udako hiriburuetako jaien tesuinguruan salbuespen legedia salatu eta euskal presoen euskal herriratzea bere osotasunean gauzatu dadin aldarrikatzeko mobilizazioak antolatzen gabilta Sare Herritarra elkartetik”.

Azken aldian ematen ari diren urratsekiko eta beraz, sal-

buespenezko espetxe politika ezabatze bide horrekiko “gure poza, esperantza eta gogoa”, adierazi zuen Sarek, mobilizazio honen aurkezpen agerraldian. “Euskal herriratzeak, gradu progresioak, isolamenduaren amaiera, hainbat espetxe atzean utzi izana... hasitako bide honek aukera berri bat zabaldu du gure herrian, probestu behar dugun aukera berria”.

Baina bidea oztopotsua eta geldoa izaten ari dela ere ohartarazia du Sarek. “Honek agerian uzten du, oraindik bide luzea dugula egiteko, benetan, salbuespen legedia guztiz atzean utzi eta legedi arrunta ezarri dadin. Asko dira oraindik, baldintza guztiak bete arren, baimenak eta 3. graduak eskuratzeko oztopoak jasaten ari diren presoak, baita, horiek eskuratu ere, Auzitegi Nazionala baliatuz, atzera bota eta berriro espetxeratuak izaten ari diren presoak ere”.

Donostian baita, baina urria-

ren 8rako “Izan Bidea” dinamikaren amaierako mobilizazioa eta jaialdia iragarri ditu.

Sareren mobilizazioak Uztailak 24, igandea

■ 11:00 Bizikleta itzuliaren hirugarren etapa San Inazio paretik ikustera joateko Mikel Laboa plazan elkartzeko deia.

Abuztuak 20, larunbata

■ 12:30 Manifestazioa Donostiako Bulebarretik, “Etxera bidea gertu” aldarripean.

Urriak 8, larunbata

Donostian:

■ 11:00 Bulebarretik, #IzanBidea dinamikaren azken kilometroak.

■ 12:00 Pio XII-tik Illunbera manifestazio koloretsua.

■ 13:00 Ekitaldia eta jaialdia Illunben: kontzertuak, txikientzako gunea, txosnak...

■ Informazio gehiagorako: sare.eus

■ Antolatzailea: Sare.

Xabi Sancho pilotaria: “Kantxa barruan oso lehiakorra naiz”

Xabier Sancho pilotariak 30 urte ditu. Bere ibilbide oparoari buruzko datu ugari eskaintzeaz gain, une honetan begiz jota duen erronka zein den azaldu digu: urrian Miarritzen jokatu den nazioarteko txapelketa.

NOAUA! Urteak egin dituzu pilotan. Txapelketa garaian, zenbatero entrenatzen duzu batatz beste?

Xabi Sancho: Gure kirola ezberdina da. Eskuekin jolasten dugu eta eskuen osasunaren baitan gehiago edo gutxiago entrenatzen dugu. Entrenamendu fisikoa astean bitan egiten dugu. Eta eskuak ondo baditugu, astean bitan entrenatzen dugu.

Non eta norekin entrenatzen duzu normalean?

Fisikoa Hernanin lantzen dut. Han biltzen gara zortzi bat pilotari, batzuetan gehiago eta



“Eskuekin jolasten dugu eta eskuen osasunaren baitan, gehiago edo gutxiago entrenatzen dugu”.

XABI SANCHO

“Aitak beti lagundu izan dit. Oso pilotazalea izan da betidanik”

besteetan gutxiago. Entrenamenduak Erreterian egiten ditut orain, bertan entrenamendu pertsonalagoak jasotzeko aukera dudalako. Aitak beti lagundu

izan dit, bera ere oso pilotazalea delako eta prest egoten da frontoira etortzeko. Gure kirola bat baten aurka edo bi biren aurka izaten da, baina modu teknikoan landu beharreko kirola ere bada. Bakarkako teknika entrenatzen aitarekin aritu izan naiz eta Erreterian prestatzaile baten laguntza dut orain.

Txapelketa garaian parrandarako tarte gutxi izango duzue. Zu ari zaren mailan aritzeko asko zaindu beharra dago, ezta?

Parranda gustatu izan zait, baina pilotan ohitura handia izaten da igandetan jolasteko. Beraz, larunbatetan ateraz gero, igandean gaizki. Koadrilakoak iraganeko parrandez aritzen direnean, faltan botatzen dut nik oroitzapen horiek ezin partekatu izana. Partidak nituen eta nire ibilbidean kirolari lehenetsuna eman izan diot.

Hala ere, lagunekin izugarritzko momentuak pasatu ditut eta oraindik ere bizitzen ditut. Ahal dudan gehienetan hurbiltzen naiz haiengana. Larunbat batzuetan lagunekin afaldu eta gero, haiek parrandara eta ni etxera joan behar. Gazteagotan nahiko zaila da egoera, baina amets bat baldin baduzu, horrek gutxiago ateratzera bideratzen zaitu.

“Irabazteko geratzen zaidan txapelketa bakarra Europako buruz burukoa da”

NOAUA! Pandemiak zein neurritan baldintzatu du zure kirol jarduerara?

Xabi Sancho: Oraintxe bertan normaltasunez jokatzen ari garela esango nuke.

Pandemiak eragin handia izan du, partida batzuk bertan behera geratu zirelako. Udalek beren erabakiak hartzen zituzten eta neurriekin frontoia irekita mantentzen zutenak bazeuden, baina baita ez irekitzea erabaki zutenak ere. Entrenatzeko aukera gutxiago ematen zizkigun horrek eta joan etorriak egiteko arazoak. Pandemia aurretik bikotearekin edota aurka-

riekin batera bidaiatzeko ohitura genuen. Frontoi barruan elkarren aurka, baina kanpoan lagun. Ohitura horiek galdu egin dira pandemiaren ondorioz.

Galtzaile ona zara ala haserrealdi handiak hartzen al dituzu?

Txapelketaren, momentuaren eta lehiakideen arabera izan ohi da. Esango nuke lehiakorra naizela eta betidanik izan naizela gainera. Kirolak ateratzen dit alderdirik txarrena; lehiakortasuna.

Partida bukatu orduko, aurkariarekin egoten gara takoak kentzen eta aldagelan. Askotan elkarrekin joaten gara afaltzera.

Lehenengo 10 edo 15 minututan minduta egoten naiz neure buruarekin galtzeagatik, baina esango nuke nahiko ondo daradaman zerbait dela.

Zein izan da orain arte lortu duzun balentriarik handiena? Eta epe erdira, zein da zure helburu nagusia?

Familian amona joan zitzaigun eta momentu txar horretan Euskadiko finaleko txartela zegoen jokoan. San Frantziskora ere joatekoa nintzen, baina muzin egin nion bidaiari amona gaizki zegoelako. Amorratuta egon nintzen garai hartan baina txapelketa hura dut gogoan eta

bihotzean. Txapelketa garrantzitsuagoak jokatu ditut, baina bihotzean hori daramat eman zidan guztiagatik.

Epe erdira, Espainiako finalerdikoa eta finala ditut buruan. Horiek dauzkat orain begiz jota. Dena den, irabazteko geratzen zaidan txapelketa bakarra Europako buruz buruko txapelketa litzateke. Lau urtetik behin egiten da eta urrian jokatu da Miarritzen. Horretarako prestatuko naiz eta helburu hori lortuz gero, pilota uzteko moduan nengo. Neure buruarekin erabat harro egongo nintzateke.

“Profesionaletara iritsi ez izanak munduan barrena ibiltzeko aukera eman dit”

NOAUA! Entrenatzaileek zer nolako garrantzia izan dute zure kirol ibilbidean?

Xabi Sancho: Prestatzaile bat baino gehiago izan dut nire ibilbidean. Enrike Huizirekin hasi nintzen, hemen, 5 edo 6 urterekin. Hortik aurrera teknifikatze-lana hasi zen. Gipuzkoako onenatarikoei beste entrenatzaile bat izaten genuen. Niretzat garrantzitsuena konfiantza izan da. Zentzu horretan, entrenatzaile batek niri edozer esateko gaitasuna izateari balioa ematen diot.

Gaztetan Gipuzkoako selezioarekin aritzen nintzenean ez zegoen entrenatzaile eta pilotariaren arteko konfiantza hori. Behar nuen hori beti aitak eman izan dit, eta horrek etxean haserrealdi batzuk eragin izan ditu. Batzuetan ez nuen hain argi ikusten hark esaten zidana, baina helduago egiten ari naizen neurrian haren intentzio onenak ikusten ditut eta horrek fruituak ere eman dituela garbi daukat.

Afizionatuen mailan, puntan zabiltza. Onenen pare. Profesionaletan ordea ez zara inoiz aritu. Aukerarik izan al duzu inoiz?

Enpresekin entrenatzen aritu izan naiz baina aukera zehatzik ez dut inoiz izan. Nirekin entrenatzen aritzen ziren Erik Jaka eta beste batzuk, eta orain profesionalak dira. Horixe-hortxe ibili izan naiz beti, txapelketa gehienak irabazita. 23 urte nituela zurrumurrua zabaldu zen. Adinean aurrera nindoan baina pilotan 20 urte inguruko gaztetxoak nahi dituzte. Arantzatxo hori badut. Jende askok esaten dit agian nire ibilbidea hobea izan dela beste enpresa mota batzuetan arituta. Kirolari batek goren mailan aritzearekin amesten



“Ogibidez irakaslea naiz eta horretan ere oso gustura nabil”.

XABI SANCHO

**“Enpresekin
entrenatzen
aritu izan naiz
baina profesionaltan
aritzeko aukera zehatzik
ez dut inoiz izan”**

du, baina ez dut batere gaizki eraman. Nirekin ibili ziren askok debutatzeko aukerarik

ez zuten izan eta utzi egin zuten kirola. Beste toki bat bilatu beharra zegoen pilotan segitzeko eta nik aurkitu dut. Gainera, pilotak lagun asko eman dizkit. Profesionaltan egon ez izanak munduan ibiltzeko eta beste kultura batzuk ezagutzeko aukera eman dit. Hori ere pozgarria da nire ustez.

Pilotari afizioz eta pasioz. Eta

ofizioa, zein duzu ogibidea?

Ogibidez irakaslea naiz eta horretan ere oso gustura nabil. Orain gutxi arte, umeekin ere aritu izan naiz entrenatzaile lanetan. Ezin denera iritsi eta umeen saioak utzi egin ditut. Ez dakit aurrerantzean pilota entrenatzaile arituko naizen. Gustatuko litzaidake gaztetxo batzuekin entrenatzen jarraitzea. Dakidan apur hori erakutsi ahal izateko.

Laburrean

“Frontoi bat? Labrit”

1. Zenbaki bat.
11.

2. Kolore bat.
Gorria.

3. Kirolari bat.
Irujo.

4. Frontoi bat.
Labrit.

5. Pelikula bat edo telesail bat.
Vikings: Valhalla.

6. Liburu bat.
Tximeletak bizkarrean
(Ugaitz Agirre, Susa).

7. Abesti bat.
Recuerdo.

8. Sare sozial bat.

Facebook.

9. Usurbilgo txoko kuttun bat.
Herriko frontoia.

10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?
Sagardo Eguna.

11. Oporretarako toki bat?
Ibiza.

Ikastolan ere hika: “Hitanoak goxotasunez eta konfiantzaz hitz egitea ahalbidetzen du”

Hitanoaren biziraupena bermatu eta hedatzen, transmisio lanean aritu da Udarregi Ikastola 2021-22 ikasturteko azken hiruhilekoan, zehazkigo esanda, DBH 4. mailako ikasleekin, astero euskara klaseen baitan irakurketari eskainitako ordubeteetan. Hilerri zahar ondoan kanpo espazioa egokitzeko taldeak auzolanean jarritako mahai eta aulkietan hain zuzen. “Hitanoa lantzeko modu erraz eta eraginkorra iruditu zitzaigun”, adierazi diote NOAUA!ri Anuk Harreguy, Eneko Matxain, Egoitz Pagola eta Enaitz Errekondo DBH4-ko ikasleek. Lantzeko eta erabiltzeko, hitanoa ahotan hartzea baitzuen xede ekimenak.

“Tradizio oso polita”

Denek noski ez zuten abiapuntu bera. Mutilen kasuan esperientzia honek hitanoa egokiago hartzen lagundu die. “Lagunen artean kalean erabiltzen genuen. Orain hobetu dugu”, adierazi digute. Nesken arteko hizketa modua bestelakoa da ordea. Lanketa honek “erakutsi digu nesken artean nola hitz egin”, adierazi digu Anukek. “Lehen ez nuen erabiltzen, orain adibidez bai tarteka koadrilan”. Ez



Hitanoaren ezagutzan sakontzen eta erabilera sustatzen aritu den Udarregi Ikastolako DBH 4ko ordezkariak.

HITANOA SUSTATZEN “Jolasgaraian mutilen artean sumatzen da erabiltzen dutela, nesken artean ez da entzuten”

bakarrik nesken artean, neskei ere hitanoz nola aritu oker erabiltzen dela irakatsi die esperientzia honek, edo badela zer hobetua.

“Tradizio oso polita” iruditzen zaie Usurbilen sustrai sakonak dituen hitanoaren erabilerari eustea, eta hau “denon ardura da”, irizten diote. Ildo horretan, ontzat ematen dute ikastolak egitasmo honi heldu izana.

DBH4 amaituta, badoaz ikastolatik. Ikasketa eremu

berrira hitanoa eramango ote duten galdetu diegu. “Konfiantza duzun pertsonekin beti errazagoa da erabiltzea. Kanpora ateratzean ez daki gu beraiek gu bezala erabiliko ote duten eta zailagoa izango da erabiltzea”.

“Oso altxor polita da”

Euskaraldia eta hitanoa ere sustatzen ari den herri batzordetik jaso zuten gonbita. Astero irakurketa dialogikoari eskaintzen zioten tartea hitanoa erabiltzeko ere balia zezaketela bururatu zitzairen. Saiakerak ikasleen artean izandako harrerarekin gustura dira. “Oso ondo hartu dute. Oso esperientzia polita izan

da”. Motz geratu zaiela adierazi digute Ander Izeta irakasleak eta Nerea Erauntzeta-murgil zuzendariak. Datorren ikasturtean egitasmoari modu luzeagoan segida emateko asmoa dute. “Oso altxor polita da”, nabarmendu du Izetak. Ikastolako zuzendariak ere bat egin du hitzokian.

Alde nabarmena erabileran

Beharrezkotzat jo zuten oinarri bat lantzea, “denek ez dute jaso hitanoa erabiltzeko ohitura”. Eta alde nabarmena dago ikasleen artean. Hitanoa mutilen artean erabiltzeko ohitura bada, baina nesken artean ez. “Jolasgaraian mutilen artean sumatzen da erabiltzen dutela, nesken artean ez da entzuten”, Izetaren esanetan.

Elkarrizketatuen artean, Anderrek aipatu digunez “koadrilako denak mutilak dira eta ez dut oroitzen inoiz zuka egin izan dugunik. Neskekin ez dut baliatzen”. Ikastolako zuzendariaren kasuan, etxean jaso zuen ezagutza. Baina 20 urterekin hasi zen erabiltzen lagunartean. “Lagunekin ezin naiz zuka mintzatu. Hitanoak goxotasunez eta konfiantzaz hitz egitea ahalbidetzen du”.

Norekin bai, norekin ez

Hitanoa erabiltzeko ezagutza oinarri bat ere lantzen aritu dira Udarregiko DBH 4-koak. Bidelagun izan dute, iazko Euskararen Egunaren bueltan hitanoaren erabilera sustatzeko ekimenen artean etxeko banatu zuten “Patrikarako hitanoa” liburuxka. Eta hor dator, eztabaida eragin duen auzia;

hitanoa norekin erabili, norekin ez. Bada “idatzi gabeko” araudi bat, lagunartean adibidez erabili daitekeela dioena, ez adibidez adinez nagusiagoak direnekin. “Eztabaida oso polita izan dugu”, adierazi digu Izetak. Araudia zorrotz segita, “ikasleek nirekin ezingo lukete erabili”. Eta horrek hitanoaren sustapena mugatzen du.

Bizirik diren arbasoak, gakoak

“Espazioak irabaztearen aldekoa naiz”, adierazi digu Erauntzeta-murgilek. Eta araudia malgutzearen aldekoa beraz, “eremu askotan arauak aldatzen diren moduan”.

Ildo beretik mintzatu da Ander Izeta. “Gertukoek hitz egiteko modu bat izaten amaitu beharko luke”. Transmisio

lan horri begira, giltzarritzat jotzen ditu hitanoa eguneroko bizimoduan natural asko baliatzen zuten eta oraindik bizi diren geure arbasoak. “Jende hori baliatu behar dugu, haiei entzun”. Eta denon artean hitanoaren erabilera indartu. “Ikastolan ere bultzada ematen saiatuko gara datorren ikasturtean”.

Belardi eta larreei buruzko azterlana partekatu dute ikasleek Udalarekin

Escola Agenda 21 ingurumen-hezkuntza programaren baitan ikasturtean zehar eginiko lanketa aurkeztu zioten Udarregi Ikastolako ikasleek oporrak hartu aurretik, Usurbilgo alkateari. Belardiak, larreak eta landare itsutasuna, gai honen bueltan jardun dute azken hilabetetotan. Herriko landareen onurak, paisaiaren historia, eremuotan aurki daitezkeen animaliak... ikertu dituzte.

Diagnosi moduko bat prestatu dute eta ondorioak partekatu zituzten Udalarekin, hainbat konpromiso hartu, eskerrak helarazi eta eskaerak plazaratzearekin batera. "Gustura jasoko ditugu udalari luzatuko dizkiozuen proposamenak", adierazi zien Usurbilgo alkateak udalbatza aretoko aurkezpen ekitaldian.

Ikastolako plazan eta Zumarte inguruan zakarrontziak jartzea eskatu zuten ikasleek. Belardietan eserlekuak, desagerturiko belardietan argazkiak jartzea garai batean nolakoak ziren ez



Udarregi Ikastolako ikasleak ikasturtean zehar egindako lanketa alkateari aurkezten. Argazkia: Udarregi Ikastola.

ESKOLA AGENDA 21

"Ikastolako plazan eta Zumarte inguruan zakarrontziak jartzea eskatu zuten ikasleek. Belardietan eserlekuak, desagerturiko belardietan argazkiak jartzea"

ahazteko. Eskertzen dute, hilerri zaharreko belardiaren mantenua, Aranerrekako parke berria eta ikastola inguruan jarritako txokoa.

"Natura herrian integratzea"

Zenbait konpromiso ere hartu dituzte LH eta DBH-ko ikasleok. Besteak beste, berdeguneak zain-

du eta errespetatzea, zakarrik ez botatzea. Udaletik alkate Agurtzane Solaberrietak eskaerok kontuan hartuko zituztela adierazi zien ikasleei. Hirigintza eta naturaren zatiketa gainditu eta "natura herrian integratzea" posible dela nabarmendu zuen, ikuspegi hori landu nahi dutela etorkizuneko Usurbilen.

Asier Berraondo, udal lantaldeko kide berria

Aurrerantzean sarritan topo egingo duzue kalean ondoko argazkiko lagunarekin, Asier Berraondo lasartearrarekin. Datorren udaberrira arte udaletxean ariko da denetarikoa lanak egiten. Dagoeneko bi aste darama jardunean; "kale garbiketan, liburutegiko hainbat zereginetan zein gizarte zerbitzuetako eta udaletxeko era askotako lanetan. Goizero egiten ditu lan horiek, atsedenerako tartea barne. Pixkanaka, herria eta eraikinak ezagutu ahala, gero eta autonomoagoa da Asier ere, lanerako zein Usurbilera joan-etorriko

bidaia egiteko", Udaletik berri eman dutenez.

Ingurune arruntetan laneratu ahal izatea, erronka nagusia

Gureak eta Atzegik sustatutako Pauso Berriak programaren baitan ari da Asier Usurbilen lanean. Udalak bat egin duen egitasmo honen baitan, bi erakundeek biltzen duten kolektibo anitza ingurune arruntetan laneratzea du helburu. "Lau hilabeteko prestakuntza jasotzen dute parte-hartzaileek. Batez ere, autonomia lantzen dute, praktikaldian egingo dituzten lanetarako prestakuntza



Asier Berraondo, kale garbiketan. Argazkia: Usurbilgo Udala.

jasotzearekin batera. Enpresedo erakundeetan egiten duten praktikaldia, berriz, urtebete ingurukoa izaten da".

Asierren kasuan bezala; aipatu moduan, datorren udaberrira arte sarritan egingo dugu topo berarekin.

Erosketak Usurbilen egitea, esker onez saritundu Hurbilagok

Usurbilen erosteak saria dakar beste behin. Behar ditugun produktu eta zerbitzuak herrian bertan eskuratzeari eskertzeko, Hurbilago Usurbilgo ostalari eta mer-

katarien elkarteak Tonbola jarri zuen martxan ekaineko bigarren hamabostaldian. Elkarteko kide diren saltokietan erosketak egitearen truke, eskua kaxatxo batean

sartu eta txartel bat hartzeko aukera zegoen. Txartel horien artean zeuden sariak. Denda bakoitzean zazpi erosketa bonu zozketatu dituzte; 30 eta 20 euroko bana,

eta 10 euroko beste bost. Bistan denez, saritu mordoa dago. Saltokiek eta Hurbilagok helarazitako irudiotan dituzue. Denak ez, hainbat bai datozen orrialdeotan.







Eskaintza turistiko zabala uda partean, bertakoentzat nahiz bisitarientzat

Badugu zer erakutsia, zer ezagutu bada eskualde honetan. Interesgu-neak izan daitezkeen hainbat txokoetara hurbildu nahiz eskura ditugun txango edo irteera ezberdinei buruzko informazio baliagarria bildu eta plazaratu du Behemendik. Gure artera datozen bisitarientzat, nahiz nahi duen bertako edonorentzat, uda parterako turismo eskaintzaren berri eman du.

Ibilbide gidatuak

Irailera arte eskualdeko sei herrietan ibilaldi gidatu eta interpretatu bana antolatu du Behemendik, “inguruneke natura- eta kultur-ondare baliotsua ezagutarazteko eta bertako txokorik esanguratsuenak ezagutzeko; gainera, fokua turismo errespetuzkoago, jasangarriago eta bizigarriago baterantz bideratuko da”.

■ Uztailak 16, Andoain: “Eliza eta dorretxe artean”.

■ Uztailak 30, Lasarte-Oria: “Aire libreko museoa”

■ Abuztuak 7, Urnieta: “Ada-



Urdaia ezagutzeko aukera abuztuaren 27an.

ESKUALDEKO ESKAINTZA

“Irailera arte, eskualdeko sei herrietan ibilaldi gidatu eta interpretatu bana antolatu du Behemendik”

rramendi inguratzen”.

■ Abuztuak 27, Usurbil: “Urdaia ezagutzen”.

■ Irailak 3, Astigarraga: “Santiagomendi eta ekialdeko mugarrak”.

■ Irailak 25, Hernani: “Trikuharritz trikuharri”.

■ Informazioa eta erreserbak: donostialdea@behemendi.eus 656 705 243 (9:00-15:00, asteleheneetik ostiralera).

Kaiak jaitsiera Aginagatik

3 orduko irteerak Oriora. Familia giroan egiteko ekintza, igeri jakitea ezinbestekoa da. Gutxienezko lau kideko taldeentzat. Informazioa eta erreserbak: 657 794 677/ info@begi-bistan.com

“Harria Hitz” ibilbidea

Sagardoaren monumentua, Tapiaren eta Zumetaren muralak, Askatasuna eta Mikel Laboa

plazak, Udarregiren omenezko eskultura... Usurbilgo kultur altxorak bisitatzeko aukera. Mugikorretarako aplikazio bidez egin daiteke bisita. Informazio gehiago: harriahitz.eus

Eskualdeko eskaintza

Usurbil inguruetan soilik ez, eskualdean ere izango da zer bisitatu. Andoainen, Plazola-Leitzaran bailara oinez edo bizikletaz ezagutzeko aukera. Informazio gehiagorako: 943 300 929/info@leitzaran-andoain.eus.

Hernanin ere hirigune historikoa (688 607 838/turismoa@hernani.eus), Galarreta pilotalekua edota Chillida-Leku museoa ezagutzeko (943 335 963 / info@museochillidaleku.com) ere bisita gidatuak antolatzen dituzte. Aipatu museoan, Donostiako jaialdi ezagunak ospatuko dira; Jazzaldia, Musika Hamabostaldia edota Ravel jaialdia. Gaueko bisitak ere iragarri dituzte, Chillidaren “arteazagutu eta esperimentatzeko leku bat” duzue.

Sagardoaren bueltako eskaintza

Eta nola ez, sagardoa dugu eskualdea turismoaren alorreko amu garrantzitsuenetako bat. Eta sagardoaren bueltan uda parterako eskaintza zabala.

Txangoak eta sagardotegiak

Sagardoaren Lurraldetik (943 550 575/info@sagardoaren-lurraldea.eus) sagardo ibaia den Urumea ertza bizikleta gainean ezagutzeko “Sagar Bike” ekimena iragarri dute. “Sagardo ibai honen inguruko sekretuak ezagutu eta Astigarragaino iritsiko

zara, sagardoaren bihotzera”. Astigarragako Sagardoetxea eta Hernaniko Chillida-Leku museoak ezagutzeko bisitak ere aukeran.

Sagardoa eta itsasoa lotzen dituen txangoak ere iragarri ditu Sagardoaren Lurraldeak, Sagardoetxea eta Donostiako Aquariuma bisitatuz edota Pasaiko Albaola Itsas Kultur Faktoria. “Ba al zenekien sagardoa itsasoari oso lotua dagoela? Sagardoetxea Museoan, marinelek eskorbutoa ekiditeko zuten sekretua ezagutuko duzu”. Bertan,

“museoa osatzen duten sagastiaren eta museo-gunearen bisita gidatua egitea da eta sagardo dastaketa gidatu batekin amaitzea. Ondoren, sagardotegira joan zaitezke ikasitakoa praktikan jartzerat”. Aipatu moduan, bisita guztion osagarri, sagardotegietan otordu ederrak egiteko aukera.

Sagardotegiak erdigunean

Sagardoa Route-tik (943 336 811 / info@sagardoa.eus) sagardotegien bueltan plan ezberdinak iragarri dituzte.

Batetik, guneok ezagutu eta gero bertan otordua egiteko aukera. “Bizi sagardotegiko esperientzia, dastatu euskal sagardo naturala eta egin bidaia gure euskal jatorrirat!”. Ibilaldiak mendian lehenbizi, eta menditik bueltan bazkariak sagardotegietan. “Ibilbide hauetan euskaldunen historia, sinesmenak eta mitologia batuko ditugu, baso, zelai eta ton-torretatik ibiltzen garen bitartean. Kirol eguna sagardotegian bazkari on batekin amaituko dugu”.

Usurbil eraikitzen ari den zaintza ekosistema ezagutzeko aukera, Jakin Jardunaldian

2040ko Euskal Herria irudikatzen aritu ziren iragan astean, UEU-ren 50. udako ikastaroen baitan Artzabalen bi egunez ospaturiko Jakin Jardunaldian. Hala zioen aditu eta aritu anitzek eskaintako saio interesgarriez osaturiko hitzorduren izenburuak; “EH2040: demografia, lurraldea, zaintza eta hizkuntza”. Tartean, Usurbilgo Zaintza Ekosistema egitasmoa aurkeztu zuten.

Informazioa partekatu soilik ez, egitasmo honen islada argia duten eta lanak oso aurreratuak dituzten bi egitasmo hurbiletik ezagutzeko aukera izan zuten; biak ala biak Kalezarren kokatuak. Bat Ugartondoko urbanizazio berrian, Puntapaxetik gora altxatzen ari diren lehen eraikina; Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa. Bigarrena, zaintzadun etxebizitzaren auzunea, garai bateko mojen konbentuaren lur eremuan. Biak bisitatzen izan ziren jardunaldiko partaideak; Usurbilgo Udala eta Matia fundazioko ordezkariak bana bidelagun zutela.

Belaunaldiak txirikordatzu

Lehen geltokia, aipatu moduan, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren ataria izan zen. Udal gobernu taldeko



Usurbilgo zaintza ekosistema egitasmoari tartea eskaini zion, UEU-ren 50. udako ikastaroen baitan, uztailaren 7an eta 8an Artzabalen ospatu zen Jakin Jardunaldia. Hitzaldi bidez soilik ez, ekosistema sare horretan gauzatze bidean dituzten bi proiektu ezagutu zituzten; Ugartondoko Txirikorda eta Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berria.

USURBILGO ALKATEA
“Ez dio etxebizitza behar bati soilik erantzuten, modu komunitarioan eta belaunaldi arteko nahasketan bizi nahi dutenei zuzendua dago”

ordezkaritzatik Agurtzane Solaberrietak gogorarazi zuenez, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako 2,4 miloi euroko inbertsioa 2023. urte hasierarako

amaitua egotea aurreikusten dute. 18-35 urte arteko gazteak eta 65 urtetik gorako adinekoak batu nahi dituzte izaera kolaboratiboko 16 etxebizitzako eraikin honetan. Hain zuzen, bi kolektibo hauen etxebizitza beharrak asetu nahi dituzte eta belaunaldi arteko loturak sendotu. Txirikordak “ez dio etxebizitza behar bati soilik erantzuten, modu komunitarioan eta belaunaldi arteko nahasketan bizi nahi dutenei

zuzendua dago”, alkateak jardunaldiko partaideei azaldu zienez. Eraikitze lanak amaitu artean, bizilekuon erabilera arautuko duen ordenantza bat lantzen ari da Udala, jardunaldi batzuk antolatzea ere aurreikusia dute eta “bertara bizitzera joango den komunitatearen kohesioa” ere landu nahi dute. Garrantzia bereziko gaia honako hau, “gure helburua autogestionatutako etxebizitza bat izatea” baita.

Txirikorda, zaintza zerbitzuen osagarri

Aurreko legealdian abiarazitako proiektuaren baitan, gazteak eta adinekoak partehartze prozesu batean murgilarazi eta egitasmo hau lankidetzan diseinatu zuten. “Prozesu hartan onartutakoarekin leialak izaten saiatu gara legealdi honetan”. Besteak beste, zortzina etxebizitza izango ditu kolektibo bakoitzak. Udalak jabetzan izango dituen bizilekuotarako alokairu bat

ere finkatu du; norberak bere diru-sarreraren %15a bideratzea.

Zaintza ekosistemaren baitan

Bada ordea, proiektu hau planteatu zenetik gaur arte egon den aldaketa nabarmen bat. “Azken hilabeteotan lanketa handi bat egiten ari gara Txirikorda ez ulertzeko proiektu isolatu gisa”, Usurbilen eraikitzen ari diren zaintza ekosistema sare

horren parte gisa baizik. Hala, “zaintzara bideraturiko bestelako zerbitzuak Txirikordarekin osagarrituko ditugu”, iragarri zuen Usurbilgo alkateak iragan asteko jardunaldietan. “Iruditzen zaigu Txirikorda badela zaintzarako espazio bat prebentzioaren ikuspegitik”. Eta hor txertatu dute aldaketetako bat. “Prozesu hau bideratu zenean 65 urtetik gorakoentzat izatea etxeok” erabaki

zen, baina beti ere menpekotasun egoeran ez baziren. “Hau da aldatu duguna. Txirikorda pertsonen etxea izango da. Mendekotasun egoeran egon arren, Txirikordan bizitzen jarraitzea”, hori ahalbideratzea litzateke helburua. Eta horrek “kontzeptu aldaketa” eskatzen duela dio alkateak, “ulertzea zaintza ez dela berdin mendekotasuna”.

Egoitzaren ordezt etxebizitzak, espazio handien ordezt txokoak



Kalezarren eraikitze lanak oso aurreratuak dituzten zaintzadun etxebizitzak barrutik ezagutzen izan ziren, UEU-ren 50. udako ikastaroen baitan, aurreko astean Artzabalen ospaturiko Jakin Jardunaldian parte hartu zutenek.

Ondotik igarotzean, inork ez esatea hau “zahar-egoitza dela”, etxebizitzak baizik. “Zergatik? Bertan pertsonak bizi direlako”. Usurbilgo zaintza ekosisteman txertatua dagoen Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren proiektua bisitatzen izan ziren iragan aste-ko Jakin Jardunaldien baitan eta mezu hauxe helarazi zieten instalakuntzak ezagutzen izan zirenei. Orain arteko zahar-egoitzekin alderatuta, “gelen ordezt etxebizitzak daude. Pertsonak haien intimitatea bermatua dute. Orain arteko pasillo luze eta espazio handiak txoko txikiagoetan bihurtzen dira”, Matia fundazioko ordezkariak berri eman zuenez.

Bizi proiektuaren segida

Helburua argia da; bertan daudenek, aurretik zuten “bizi proiektuarekin segi ahal izatea, zaintza behar handiak izanda ere”.

Horrekin batera, lantalde egonkor eta txikiagoak osatzea eta horrek zaintza

ZAINTZADUN ETXEAK

“Gelen ordezt etxebizitzak daude. Pertsonak haien intimitatea bermatua dute. Orain arteko espazio handiak txoko txikiagoetan bihurtzen dira”

pertsonalizatzea ahalbidetuko du. “Espazio handiek funtzionatu ahal izateko arau asko izatea ekartzen dute. Espazio txikiek aldiz, familitan egiten duguna, adostu eta negoziatzea ahalbidetzen dute”.

Komunitatearekin harreman estuan

Irisgarriak izango dira zaintzadun etxebizitzok; autobus geltokiarekin lotuko duten igogailua izango dute. Komunitatean txertatua egongo da eta elkarbizitza hori sustatu nahi dute. “Herriarekin partekatze gunea” izango ditu. Guztia, Usurbil eraikitzen ari den zaintza ekosistemaren barruan. “Guretzako leku hau

ekosistema horren beste baliabide bat da”, nabarmendu zieten Matia fundazioko ki-deek Kalezarrera hurbildutako bisitariei. Etxebizitzok barrutik nolakoak diren ezagutzeko aukera izan zuten. Lanak oso aurreratuak dituzte. Gogoan izan, atzerapenik ez bada, 2023. urte hasierarako lanak amaitzea aurreikusia dute, erabiltzeko moduan beraz.

Lehen bizilagunak, Zizurkildik etorriko dira

Une honetan, Zizurkilgo Frailoron dauden egoiliarak Kalezarko bizilekuotara etorriko dira, eraikitze lanak amaitu ostean. Guztira, 88 pertsona. “Usurbil eta inguruko herrietan egoitza behar duten pertsonak Zizurkilen daude. Tartean, plaza eskatu duten azken usurbildarrak”.

Egoitza hark zaintza zerbitzuak egoki emateko aukerak eskaintzen ez dituenaz, aipatu moduan Kalezarko eremura etorriko dira bizitzera. 127 pertsonentzako dauden gainetarako plazen kudeaketa Foru Aldundia bideratzekoa da.

Bide-orriaren diseinu lan betean

Kalezarren eraikitzen ari diren zaintzadun etxebizitzak bisitatu aurretik, Artzabalgo Jakin Jardunaldian Usurbilgo zaintza ekosistemaren nondik norakoak aurkeztu zituzten Matiako ordezkari Erkuden Aldazek eta Maider Azurmendik. Autonomia, zeharkakotasuna, erantzukidetasuna, parte-hartzea. Baloreon gainean ari dira eraikitzen zaintza ekosistema. “Pertsona ardatz duen arreta eredua”, pertsona erdigunean izango duena eta haren bueltan zaintza sistema sare, bizi-itxaropena hazten doan heinean garai batean baino epe luzeagorako zaintza beharrez ari garela jakinik. “Zaintza prozesua luzatzen ari da. Lehen 5-6 urtekoa izaten zen, egun 12-15 urtekoa”. Eta zaintzaileak “emakume aurpegia” du.

Zaintzan inplikatuak dauden eragileak bidelagun

Egungo sistemak herritarren beharrak ez dituela asetzen ikusita, prozesu partehartzaile bat abiarazi zuten 2021ean Usurbilen, gai honetan inplikatuak dauden norbanako, eragile eta erakundeekin, nola zaindu eta zainduak izan nahi dugun lantzeko. Prozesu honek partaidea ditu; zaintza jasotzen duten pertsonak, zaintzaileak, Gizarte Zerbitzuak, elkarteak, zaintza lanetan eskuhartzen duten enpresak, Usurbilgo Udala... Artzabalen azaldu zuten moduan, hiru fasetan banatua. Diagnosi bat landu zen, talde eragile bat sortu. Urte amaierarako bide-orri bat diseinatu nahi dute, horretarako lau batzorde osatuta: zerbitzuena, senide eta zaintza behar dutenena, Gizarte Zerbitzuena eta herritarrena. Hurrengo urtean, 2023an, inplementazio faseari ekingo diote.

Nazioarteko gaztetxo futbolarien arteko lehia gure artean

Euskal Herriko hainbat talderekin batera, Katalunia, Murtzia, Madril, Japonia, Mexiko, AEB, Erresuma Batua, Frantzia, Jordania, Portugal... Mundu bat izan genuen iragan astean Haranen eta baita Zubietako futbol zelaian ere. Aipatu herrialde guztietako eta gehiagotako gaztetxo futbolari taldeen arteko Donosti Cup jokatu zen; partida gehienak Gipuzkoako hiriburuan bertan, baina baita beste hainbat udalerrietan tartean, Kalezar eta Zubietako zelaian.

Andorrakoekin lehian

Parte hartzaileen artean zen baita Usurbil F.T.-ren ordezkaritza bat: Adur Ayuso, Adur Soroa, Aimar Ibarreta, Aimar Ikatzeta, Alain Harreguy, Alain Santos, Amets Ormazabal, Asier Collado, Eneko Rodriguez, Iker Pagola, Manex Ayerbe, Manex Indacoechea, Mikel Alustiza,



Usurbil F.T. eta Andorrakoekin artean Haranen jokaturiko neurketa.

DONOSTI CUP

“1997-2013 artean jaiotako gaztetxoen etenik gabeko futbol neurketek gozatu ahal izan zuten”

Oihan Herrera, Oihan Matxain, Unax Larrarte eta Xabat Jaurregi. Uztailaren 4an Kostkas A taldearen aurka Añorgan, 5-0 galdu zuen. Biharamunean, asteartean, Zizurkilén 0-2 irabazi zioten usurbildarrek Soccer Lle-

daiAragon taldeari. Zizurkilén eta Añorgan jokatu ostean, uztailaren 6an etxean izan zuten nazioarteko hainbat futbol talde gaztetxoren topagunean hirugarrenez eskuhartzeko aukera. Andorrakoekin aurka jokatu zuten, 0 eta 1 galdu zuten. 1997-2013 artean jaiotako gaztetxoen etenik gabeko futbol neurketek gozatu ahal izan zen iragan aste osora luzatu zen nazioarteko txapelketa honi esker, goizetik arratsaldera.

Usurbil-Peñaloscintos artean, joan etorrian

Ziortzako kanpaldira joan etorrian dabilta asteotan DBH-ko gazteak. 3 eta 4 mailetako ikasleak egon dira uztailaren 14ra arte Errioxako Peñaloscintosen, DBH2-koak hilaren 20ra arte egongo dira, eta lehen mailakoak gero hilaren 26ra arte. Hiru txanda egokitu dituzte, udaberrian izena eman zuten gazte guztiei lekua egiteko.



DBH 3 eta 4 mailetako gazteak Usurbildik abiatu ziren eguneko irudia.

Usurbil K.E.-n izen ematea

Uztailaren 18ra arteko epea finkatu du Usurbil Kirol Elkarteak, 2022-23 denboraldirako izena emateko. Online bideratu beharko da. Jokalari direnek apuntatzeko formularioa zuzenean jasoko dute. Kide berriek, edota garai batean eskubaloian jokatu eta elkarte honetara itzuli nahi dutenek lotura honetan klikatuta eskuratu ahaliko dute formularioa: <https://forms.gle/eZUpqdQv2aiEVcPc6>

Lanbide Eskolan matrikulazioa

Uztailaren 12ra arte onartuen behin-behineko zerrendaren erreklamazio epea igarota, hilaren 14an behin-betiko zerrenda argitaratu eta biharamunean, hilaren 15etik 19ra 2022-23 ikasturterako matrikulatzeko aukera izango da Lanbide Eskolan. Egun horietan 8:00-18:00 artean izango dute zabalik idazkaritza, gainerako egunetan 8:00-14:00 artean. Informazio gehiagorako: 943 364 600 lhuribil.eus adkomunikazioa@lhuribil.eus

Oinarritzko Lanbide Heziketa

Zubietako Lanbide Eskolaren antzera, Atalluko Oinarritzko Lanbide Heziketan ere egunotan izango da matrikulatzeko aukera. Informazio gehiagorako:

943 360 465

olh.usurbil.eus

Atallu. Zanziura, 3

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· karta · oilasko erreak, hamburgerak..
paellak enkarguz!
619 40 91 98
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78 RPS: 19/22 20170
USURBIL

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziakoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentzia da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak

onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² gara-je itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondo jatetxean. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan

lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan

zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska gaztea. Interesatuak: 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberitzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo aste-bukaerak interna moduan aritzeko prestasuna daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. Harremanetarako: 695 184179 / aneseoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxetako garbiketa lanak egiteko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkatz. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdutuenak Udaltzaintzari eman daitezke.

24 hazbeteko telebista berria salgai. Erabili gabea. 646 185 716.

**Zorionak Noa!**

Aurten ere iritsi da uztailaren 15a, zure 8. urtebetetze eguna. Gustura asko ospatuko dugu, muxu handi bat!

Heriotzak**Jesus Mari Zulaica Calderon**

Uztailaren 6an
hil zen
71 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 14	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 15	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 16	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea 17	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Astelehena 18	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea 19	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola	9. Lasarte
Asteazkena 20	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 21	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 22	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 23	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 24	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Agenda uztaila

14 osteguna

■ **Zubietako jaiak:** uztailaren 27ko pilota jaialdirako sarreraren salmenta 17:00-20:00 artean Kaxkapen.

■ **Usurbilgo jaien balorazio bilera.** 18:00etan Potxoenean.

15 ostirala

■ **Matrikulazio epearen irekiera uztailaren 19ra arte Lanbide Heziketan.** 8:00-18:00 artean Usurbilgo Lanbide Eskolan.

16 larunbata

Zubietako jaiak begira

Uztailaren 23tik 31ra jai giro betean murgilduko da Zubietako, hiru urteren ostean bueltan izango dituzten Santioetan. Egitaraua prest dute. Iragarriko duten hitzordu sortara begirako zenbait ohar lerrootan. Hasteko, zenbait otorduetan lekua hartzeko garaia da. Uztailaren 24an ospatuko den herri afarirako txartelak hilaren 21era arte salgai izango dira Almandegin.

Pilota jaialdirako sarrerak

Egun berean, Yoko Garbi elkartearen ospatuko den jubilatuen bazkarirako ere epe-muga bera finkatu du Jai Batzordeak telefono zenbaki honetan izena emateko: 639 273 580 (Miriam). Hilaren 26ra arte, uztailaren 31rako iragarri duten zikiro janerako txartelak eskuratzeko. Herri afarikoen modura, Almandegin izango dira salgai.

Otorduetarako soilik ez. Uztailaren 27rako pilota jaialdia iragarri dute. Bi neurketa jokatu dira, biak ala biak binaka. Has-



Iazko ezohiko ospakizunen artean, dantzan plazaratu ziren zubietarrak uztailaren 25ean.

teko, Iker Aburuza eta Oier Aramburu, Andoni Olasagasti eta Aimar Iraolarekin lehiatuko dira. Segidan, binakako bigarren neurketa; Bengoetxea eta Ortiz de Urbina- ren, eta Urmeneta-Odriozola bikotearen artekoa. Sarrerak uztailaren 14an etan 18an jarriko dituzte salgai Kaxkapen, 17:00-20:00 artean. Jaialdi egunean bertan ere "gutxi batzuk salgai egongo dira". Arratsaldeko 17:00etan hasita hain zuzen.

9 egunez luzatuko da jai giroa Zubietan

Ohi baino egunbete lehenago itzuliko dira hiru urteren ostean Santio jaiak Zubietara. Uztailaren 23an izango da, larunbatarekin, arratsaldeko 18:00etan jaurtiko duten txupinazoarekin. Amaitu ohi bezala, hilaren 31n. Tartean, kirol jarduerak, goizaldera arte luzatuko

diren kontzertu gauak, orrialde honetan bertan aipatu moduan, herritar ororentzako otorduak; jubilatuen, herri-afaria, zikiro jana... Egunez egun uztailleko azken astean Zubietan biziko dutena, xehetasunekin, datorren asteke aldizkarian.

Datozenak

Urdaigako jaiak

Zubietakoen ostean, abuztuari ere jai giroan ekiteko Sanestebanen itzulera. Momentuz, apuntatu zuen agendatan data hauek, hiru jai egun izango baituzte Urdaigako festetan; abuztuaren 3a, 5a, eta 6a. Xehetasun gehiago, datorren aldizkarian.

Atxegaldeko jaiak

Urdaigakoekin hasi eta Atxegaldeko festekin amaituko dugu abuztua. 2019ra arte egin bezala, hilabeteko azken asteburuan jai izango dute auzoan; abuztuaren 26tik 28ra hain zuzen. Egitaraua datorren aldizkarian.

Usurbilgo jaiak buruzko balorazio bilera

"Bukatu dira Santixabelak eta bizi- pen ederrak utzi dizkigute. Apropo- sa ikusi dugu jaien balorazioa egiteko bilera bat egitea: zer atera den ondo, zer hobetu daitekeen... guztion artean ikusteko", jakinarazi dute Usurbilgo Jai Batzordetik. Fes- ten osteko bilkura honen hitzordua iragarri eta zehaztu dute jada; uztai- laren 14an izango da, arratsaldeko 18:00etan hasita Potxoenean. Deial- dia Usurbilgo jaien antolakuntzan parte hartu duten eragileei helarazi die Jai Batzordeak.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

noaia



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarritzko bultzada izan zuen Noaia Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.



30 urte baino gutxiago dituzu?

Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!

25 € / URTEAN*

* 30 urte betetzean automatikoki bazkideitza arrunta izatera pasako da.

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaia Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdiko, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitorpenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkarla astero posta arruntez jaso aukera.

ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez
noaia.eus/bazkideitza



Telefonoz
943 360 321



Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefona

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkideitza mota

☐ Arrunta (40 €)

☐ <30 urte (25 €)

Jaiotze data

noaia.eus

Edertu zaitez!



Ballancer®

presoterapia

Kliniko eta zientifikoki
irtenbide frogatua
mediku eta estetika
arloetarako modaltzen den
erantzuna




Munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT AUKERA ONENA

Artzabal baserria 688 75 96 96



secretos™ del agua

INTZA

ILEAPAINDEGIA ESTETIKA ZENTROA

osasungarriak eta
kimikarik gabe



Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Elexpe

ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462



GOLDWELL ELUMEN

mistoa

9.00etatik 19.00etara zabalik

BIOLOGO BATEK MIKROSKOPIOZ EGINDAKO BURU-AZAL ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951